

INKESTA

1. Zer da Durangoko Azoka zuretzat?
2. Azokara joaten al zara? Zertara?
3. Durangoko Azokarik egingo ez balitz, nolakoa izango litzateke

- gaur egun Euskal Herriko produkzio kulturala?
4. Idazle-irakurle, musikari-entzule harremanak egiteko toki ona dela diote Azoka. Hala iruditzen al zaizu?

JOSE LUIS OTAMENDI
(Idazlea)

«Sator mordo bat sartzen da hor, euskal kulturaren aitzakian»



1. Alde batetik, Euskal Herriko kultur produkzioaren erakusleho zabal eta berezi bat da. Urtean zehar egiten den lana dena batera eta elkarren ondoren ikusteko modua ematen duen gune bat. Bestetik berri, urtean zehar gutxitxo ikusitako lagun eta ezagunekin elkarrateak egiteko modua, hitzordua egiteko modua. Gero, aurrera begira ere atertzen dira hainbat saltsa harreman horietatik.

2. Bai, joaten naiz. Azkenengo urteetan saltzera joaten naiz gehien bat, eta gero, noski, lagunekin egotera. Beti bilatzen da tartetxoren bat, aspaldian ikusi gabeko eta gertuko lagunekin egonaldi gustagarriak egiteko.

3. Ia ia ezin da imaginatu. Durangok asko markatu du gutariako askoren bizitza arlo horretatik. Beti erritmo horietan bizi izan gara, eta baita askotan kritikatu ere, hori txori lepo bat bihurtzen delako, hau da dena batera ateratzen da hor, eta gero, gaur egun lehorten handirik gertatzen ez bada ere... Durangok gehitxo lastratzen duela dirudi, baina tira, gauden egoeran, ematen du, gertaerak arrazoia ematen diotela Azokari. Gure kulturaren indarra eta tinkotasuna erakusteko aukera ere badela Durango esan nahi dut, nahiz eta erdal produkzio eta sator mordo bat ere sartzen den hor, euskal kulturaren aitzakian.

4. Perspektiba bat ematen dizu, bestelakoan ematen ez dizuna, gertutik nekez somatzen duzun irakurle edo idazle hori eskura jartzen dizu bilgune ho-

rrek, eta bai, alde horretatik badu bentaja hori ere. Badakigu bestela ere badiela aukera eta moduak harremanak sortzeko, baina hor askoz era naturalagoan eman litezkeela esango nuke, nahiz eta bertako zurrumbilo eta zoramen horrek askotan hori ere galerazi egiten duen.

TOTI MARTINEZ DE LEZEA
(Idazlea)

«Beste era batera ezinezkoa litzatekeen erakusleho bat da»



1. Euskal Herrian dagoen zita bakarra da. Ni azoka egin zen lehen urteik joan naiz Durangora. Bi liburu eta disko bat zeuden azoka txiki hartatik, urte bakarren bat kenduta beste guztietan han izan naiz. Durangoko azoka zen beste inon topatzen ez nuen materiala aurkitzen nuen leku bakarra. Euskal Herrian gaur egun dagoen zita bakarra da.

2. Bai, urtero. Bila joaten naiz, bilatzera, begiratzera, ezustekoren baten bila. Katalogoetatik at dauden liburuen bila, beste inon aurkitu ezin diren liburuen bila. Lagunak eta jendea ikustera ere joaten naiz, euskara entzutera.

3. Azoka erakusleho bat da. Disketxeen eta argitaletxeen dinamika berdina litzake azokarik gabe ere, beraz produkzioa ere bai. Beste era batera egitea ezinezkoa litzaken erakusleho bat da azoka.

4. Sinaduren aurretik ez zegoen elkar ezagutzeko aukera hori, ezin zinen ezagutu nahi zenuenarengana joan eta "kaixo" esan. Baina orain, komunikabideetatik eta hobeto ezagutzen ditugu fisikoki, eta sinadurak direla eta idazle irakurle artean sinbiosis bat eta harreman ona daudela uste dut.

SORKUN
(Kantaria)

«Garrantzizkoa da promozio egiteko Durangon egotea»



1. Euskal Herrian dagoen liburu, disko, fanzine, aldizkari eta abarren erakusleho bat da, izugarritzko arrakasta duen erakusketa bat. Egia esan oso harro nago Durangoko azokaz, produktu bat kaleratzeko unerik egokiena delako. Erakusleho oso ona da. Garrantzizkoa da promozio mailan Durangon egotea.

2. Saiatzen naiz joaten. Batik bat saltzera, kontzertuak ematera, aurkezpenak egitera edo antzeko gauzetara joan izan naiz. Bisitan ere izan naiz noski, lagunekin, gauzak ikustera, giroan murgiltzera, zerbait erostera...

3. Nik uste dut Azoka zerbait kondizionantea dela argitaletxe eta disketxeentzat. Beti, Durangorako edo udararako kaleratzen dira diskoak. Durango ez-palego beste plataformaren bat egongo litzatekeela uste dut.

4. Harremanak sortzeko aukera egongo dela pentsatzen dut, denok bertan ibiltzen garelako.

SUSTRAI COLINA
(Bertsolaria)

«Egun-pasa joateko aitzakia polita izaten da Azoka»



1. Niretzat azoka urteroko hitzordua da. Txikitik aitarekin joaten nintzen liburuak erosi eta buelta ematera, eta orain, lagunekin joaten naiz. Horixe, urteroko hitzordua da, egun-pasa joateko aitzakia on bat.

2. Bai joaten naiz. Egun pasa, edo arratsalde pasa edo tokatzen den bezala. Joan, buelta bat eman, liburu pare bat edo disko bat erosi, kontzerturen bat edo tokatzen baldin bada ikusi, Durangon pintxo bat jan edo afaldu edo bazkaldu eta trago bat hartu... aitzakia izaten da.

3. Garbi dagoena da, jendeak produkzioa Durangora begira egiten duela, eta agian Durango ez balitz, berdin produzituko lukete (kantitatez), baina beste modu batera. Hau da, ez lukete abendurako edo udazkenerako produzituko dena, urtean zehar gehiago banatuta baizik.

4. Ni, egia esan ez naiz sekula harreman horien bila joan, baina, egia da idazleak eta musikariak hor egoten direla, eta norbaitek ikusi nahi baditu hor dauzkala esku eskura beraiekin hitz egiteko edo galderak egiteko... curiosidadeak asetzeko.

KOLDO ZUAZO
(Idazlea)

«Han ikusten den giroak harremanak egiteko laguntzen du»



1. Durangoko azokari begira liburu berria asko ateratzen da, eta gero gainera, azokara joanez, denetan ikusten ez dituzun zenbait liburu aurkitzen dituzu. Bestalde, azokaren inguruan beste ekitaldi batzuk ere egoten dira. Jendea eta lagunak ikusteko aukera ematen du.

2. Urtero joaten naiz, bai. Batez ere liburuak ikustera joaten naiz, eta bide batez beste gauza batzuk ere egiten dira...

3. Azokari begira asko produzitzen dela ikusten da, bolada honetan ateratzen dira nobedade asko, eta horrek esan nahi du, itxura denez, saldu egiten dela.

4. Nik neuk ez dut harremanik egin Azokan, baina, pentsatzen dut egingo direla. Han ikusten den giroak behintzat laguntzen du horretan.

ANARI
(Kantaria)

«Azokarik gabe produkzio bera litzatekeela pentsatu nahi dut»



1. Ikusi eta ho-beagorik bilatzen ez baduzu erosi egiten duzun lekua. Euskal kulturaren urte osoko uzta jasotzen den lekua da Azoka, urte osoko lana erakusgai egoten den lekua.

2. Bai, joaten naiz. Lehen ia urtero argitaletxe bateko postuan egoten nintzen lanean. Orain, asteburu aurreko egun horiek aprobetxatzen ditut joateko. Asteburuan agobio handia egoten da, eta nahiago izaten dut aurreko egunetan joatea, bestela ezin baita lasai ibili. Deskatalogatutako disko eta liburuen bila joaten naiz, baita aldizkariak ikustera ere.

3. Nik uste dut disketxe eta argitaletxetan bi data markatzen direla, alde batetik udaberri uda, eta bestetik udazken negua, eta hor azokara begira batik bat. Azokarik gabe ere produkzioa berdina izango litzatekeela pentsatu nahi dut. Egia da argitaletxe eta disketxeek izaten dutela Durangorako zer edukiko duten kezka, baina ez nuke pentsatu nahi bestela produkzioa maila ezberdinean emango litzatekenik.

4. Euskal literaturan oso ohikoa ez den disko eta liburu sinaketa egoten da azokan, eta baliteke, horrek harreman horiek sortzen laguntzea. Euskal Herrian ez da oso ohikoa disko edo liburuen bat ateratakoan sinadurak ematera joatea, egoera berezi horrek elkarrengana gerturatzea lagundu gaitzake.

IGOR ARZUAGA argi izpi bat

ARIMA BELTZA blues sustraia

KOKEIN kokein

PETTI & etxeko uzta

TAPIA ETA LETURIA

MIKEL URDANGARIN heldu artean

BIDE ERTZEAN bide ertzean

ZEIA MAYS harrobian

SPLITT 77 antenna

MIREN ARANBURU jazz

ERRABAL

HOTSAK